



**2021-2024 URTEETARAKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ALTZARIEN
ETA TRESNERIAREN HORNIKUNTZARAKO AKORDIO MARKOA
PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ HORNITZAILEAK KONTRATATZEKO
PROPOSAMENA**

Batetik, 1/1993 Legeak, otsailaren 9koak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, bere 9. artikuluko bigarren atalean zehazten du Hezkuntza Administrazioak, Administrazio eta egitate sozial desberdinekin lankidetzan, zero urtetik aurrerako eskolatzearen ezarpen mailakatua burutuko duela.

Bestetik, zehazten da, 0 eta 3 urteko haurrentzako haur eskolen kudeaketa 297/2002 Dekretuaren, abenduaren 17koa, eta 2003ko irailaren 24an Eusko Jaurlaritza eta Euskal Autonomia Erkidegoko 31 udalerrien artean sinatutako Hitzarmenaren arabera sortu den HAURRESKOLAK Partzuergoak gauzatuko duela.

Helburu hauek erdiesteko, Haurreskolak Partzuergoaren kudeaketa planaren barnean, zentro berrien sorrera eta dagoeneko existitzen ziren zentroyen handitzea onartu zen. Era berean, zegoen materialaren berritzea onetsi zen, haurreskolek dituzten behar berriei erantzuteko. Honen ondorioz, 2020ko ekitaldiko aurrekontuan aipatutako haurreskolak hornitzeko dagozkion aurrekontuko partidak barneratu ziren.

Ekipamendu honetan haurreskolen funtzionamendu egokirako beharrezko altzariak, psikomotrizitate elementuak, jostailuak, bulegoko altzariak... barneratzen dira.

Aipatutako ekipamendua hobetzeko eta produktuan kalitate eta segurtasuna bermatzeko asmoz, 2010eko azaroaren 23ko batzarrean ekipamendu honen homologazio prozesua hastea erabaki zen. Homologazio prozesu hau 2011ko ekainean amaitu zen eta 4 urteko iraupena izango zuela aurreikusi zen.

Homologazio prozesua lizitatuzaile desberdinekin sinatutako akordio marko desberdinen bidez arautzen da.

Produktuak homologatzeko zehaztaperen teknikoaren pleguak Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile talde batekin eta kanpoko aholkularitza enpresa batekin lankidetzan landu dira.

Ikasturte honetan sinatuko den akordio markoa altzariei eta tresneriari dagokiona da.

Akordio marko honen lizitaziorako iragarkia Kontratatzaile Profilean argitaratuko da Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak akordioa onartu ostean.

Lizitazioa prozedura izapide arruntaren eta prozedura irakiaren bidez gauzatuko da.

Laburbilduz, eta orain artean aipatutako guztia oinarritzat hartuta, idatzi honen bidez Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari altzarien eta tresneriaren hornikuntzarako akordio markoa prozedura irekiaren bidez



hornitzaileak kontratazeko urteko 180.500 euroko gastu baimena (BEZ gabe) onartu dezan eskatzen zaio.

Era berean, altzariak eskuratzeko lizitazio publikorako ondorengo kontratazio mahaia onartzea eskatzen zaio:

- Lehendakaria: Idoia Nogales Alberdi
- Idazkaria: Zorione Etxezarraga Ortuondo
- Bokal juridikoa: Begoña Barranco Lopez
- Bokal ekonomikoa: Irantzu Benitez Galarza
- Bokal 3: Ainhoa Aranburu Tobar
- Bokal 4: Alicia Andrés Luis
- Bokal 5: M. Carmen Martin Fernandez

Ordezkoak:

- Lehendakariarena: Irantzu Benítez Galarza edo Mireia Ibarra Fernández
- Idazkariarena: Idoia Nogales Alberdi edo Alicia Andrés Luis
- Bokalenak: Mireia Ibarra Fernandez edo Iratxe Badiola López

Eibar, 2020ko ekainaren 22a